

IRABAZI-ITURRIAK

Atal honetan, gure enpresaren zati garrantzitsuena izango diren diru sarrerak zehaztuko ditugu, horretarako, atal hau bi azpiataletan banatu dugu, hasierako diru-iturriak eta hilabeteko diru-sarrerak.

Gure enpresaren produktua ekoiztu ahal izateko hasierako inbertsioa beharko dugu, bertan barne izango dira, patentea, marka, makineria eta ordenagailuak. Horretarako finantzazioa modu desberdinetan lortuko dugu:

Lehenik, taldeko lau ekintzaile bakoitzak 5.556€-ko kapital ekarpena egingo du, ordenagailuak, patentea eta marka ordaintzeko, gure ekarpenak guztira 22.224€-koa izango da. Bestalde, makineriaren erosketa gure poltsikotik ordaintzea ezinezkoa denez, 319.113€-ko mailegu eskatuko diogu *Banco Santanderri*. Hasierako inbertsio totala, ekarpenen eta maileguaren artean, 341.337€ izango da.

Behin inbertsioak ordainduta eta gure proiektua martxan jarrita, gure enpresak hilabetero diru-iturriak izango ditu panpin bakoitzaren salmentatik.

PANPINEN SALMENTA		
Kokalekua	Hilabetean	Urtean
Espainia	1.200 panpin x 25€ = 30.000€	30.000 x 12 = 360.000€
AEB	2.000 panpin x 29,1952 USD(25€) = 50.000€	58.183,50USD(50.000€) x 12 = 600.00€
GUZTIRA	80.000€	420.000€

Panpinen salmenta-planak Espainia eta AEBetako hilabete eta urteko diru-sarrerak zehatzen ditu: 1200 panpin hilabetero Espainian 25€-ko prezioan 30.000€ guztira, eta 2.000 panpin AEBetan 29,1952 USD-ko prezioan (50.000€, 25€/panpin), guztira 80.000€ hilabetean eta 420.000€ urtean. Prezioari dagokienez,



panpin bakoitza 25€-ko prezio finkoak izango ditu bi merkatutan, AEBetan USD kontuan hartuta. Salmenta-kopuruak aurreikusitakoak dira enpresaren hasierako ekoizpen-kapazitatearen eta merkatuko eskaeraren oinarrian, Espainian txikiagoak (1200 unitate) eta AEBetan handiagoak (2000 unitate) herrialdearen tamaina eta salmenta-ahalmenaren arabera.

Lera Style-ren diru-sarrerak panpinen salmentetan bakarrik oinarrituko direnez, produktua beraren salmentak %100eko portzentaia hartuko du diru-sarreretan.

